

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1996ko irailak 26 • 106.zka. •

 Bukavu proiektua aurrera

 San Migelak

 Euskalan: euskera lan munduan


 Deba ibaiaren saneamendu plana




MECA

tailerretan beste zerbitzu bat eskaintzen dizugu:

ordezkatzeko eta alokatzeko kotxeak



Zure kotxea gure eskuetan dagoen artean, guk beste bat utziko dizugu*



RENAULT

* Egunean, 1.160 pezetagarik



Uste duzu 2000. urterako Deba ibaia garbi egongo dela? Bizitzarik egongo da?

Arantxa Gomez
(Langilea)

Nik uste dut baietz. Batzutan ura garbiago etortzen da beste batzutan baino.

Urte asko dela egon zen bizitza Deba ibaian baina zaila da hori esatea.



Jose Migel Aranburu
(Langilea)

Presaka ibiltzen badira bai.

Bizitza egongo den edo ez esatea zaila da baina nik zaila ikusten dut.



Toñi Hernandez
(Langilea)

Azkar ibili beharko dira. Aspalditik ari dira gauza bera esaten baina asko tardatzen ari dira.


Ibaia garbitzen badute baliteke egunen baten berriz ere bizitza egotea.



Ibai Bengoa
(Ikaslea)

Lau urte gutxi dira ibaia garbitzeko baina mugitzen badira eta dirua badago beharbada bai.

Ibaia ondo garbitu ezkeru bai, gustatuko litzaidake horrela izatea.



Mobiliario ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

INDUSTRIALDEA MEDIKU-ZENTROA

Luis Orruño
Medikua
Zaraita Masaiak

Industrialdea
Pabelloi F-O b
79 06 82

ARETXABALETA

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias
• Sukalde muntatzailea
• Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-konseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzasu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

1996ko irailak 26 - 3. or.

Kepa Urraren aitaren heriotza dela eta

Joan den ostiralean, hilak 13, Kepa Urria, preso politiko atxabaltarraren aita hil zela jakin ahal izan genuen. Askorentzat hau bizitzaren gertaera arrunt bat besterik ez izan arren, honi buruz gogoeta batzuk azaldu nahi dizkizuegu.

Lehenik aipatu behar da aspaldi ez zuela Kepa aita ikusten, alde batetik honen gaixotasu-narengatik, eta bestetik, epaileak ezarritako zigorrari erausten zaion dispertsioa dela eta, etxetik 1000 Kmtara dutelako.

Zigor hau azken muturreraino eramanez, aitaren hilobiratzerara ere ezin izan da etorri, egin beharreko tramiteak ezin zirelako gauzatu asteburua izateagatik, Puerto 2ko zuzendariaren arabera. Hala ere, zuzendariak berak onartu zuenez, ETako preso izan beharrean, preso soziala izan balitz (edo GALEkoa, agian?), ez zen eragozpenik izango.

Honen aurrean, garbi geratzen da, gure ustez, noraino heltzen den Euskal preso politikoaren kolektiboaren aurka eramaten ari diren errepresio politikoa, eurak ezarritako legeak ere hausten dituztelarik. Baina guzti hau ez zen posible izango PNV, EA, "GESTO" eta abarrek ematen dien babesa eta laguntzarik gabe.

Alderdi hauetako zenbait burukidek, dispertsioaren balio eza ikusi ondoren, legez kanpoko neurritzat jo badute ere (urteetan politika hori bultzatu eta gero), ezer gutxi egin dute egoera aldatzeko.

Bukatzeko, besarkada bat bidali nahi diogu Kepa lagunari, eta guztiok animatu idatzi edo bisita egin diezaiozuen.

ARETXABALETAKO AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA

Udala eta Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea

Uztailaren 22an Aretxabaletako udalak euskal udal Intsumituen mankomunitatean ez sartzea erabaki zuen. PNV eta EAk hartu zuten erabakia ez da ulerterraza. Alde batetik EUDIMaren filosofia ondo ikusten dute eta aurreko Udalbatzarrak intsumisioaren alde onartu zuen mozioarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu dute; baina beste aldetik uko egiten diote EUDIMAn sartzeari, beren buruak zuritu asmoz arrazoi benetan kaxkarrak emanaz. Plenoa egiteko orduan ere opor aurreko azkena aukeratu zuten, kontu hau isiltzeko asmotan.

Talde Antimilitaristaren aldetik ere onartu beharra daukagu ez dugula beharbada EUDIMA zer den eta zertarako den nahikoa azaldu, ez herriari eta ezta politikoei ere. EUDIMAk Euskal Herri ez militarizatu batera iristeko helburua du, ez derrigorrezko soldaduzkarekin amaitzea bakarrik. Mankomunitate hau Kode Penal berria eta berak dakarren inhabilitazio zigorren kontra borrokatzeko sortu da; baita Udaletako ordezkari eta intsumisioen babesa lortzeko eta antimilitarismoaren aldeko ekintzak bultzatzeko. Horregatik ez dugu Udalaren jarrera kontradiktorioa ulertzen. Ondo ikusten dute intsumisioaren kontua baina ez dute busti nahi.

Zinegotzietatik partiduen eta paktu elektoralen menpe ez egotea eskatuko genieke (beren hitza beteaz), eta Eudima-n sartzearen kontu hau aztertu dezatela aurrerantzean bertan sartzeko atea itxi gabe.

Oraingoz besterik ez, Berriozarreko intsumisio eguna bertan dagoela gogoratu eta desobedientzia jorratu. Agur.

ARETXABALETAKO TALDE ANTIMILITARISTA

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK



MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

Bukavu proiektuari esker 1.000 umetik gora eskolaratzea lortu da

Afrikako Zaire estatuan dagoen Bukavu-ko Buhimba eta Cabarabe herrietan 18 ikasgela eraiki dira dagoeneko. Guzti honek 1000 umetik gora eskolaratzea suposatzen du eta modu honetan hango biztanleek amets bat beteta ikusi dute: euren umeak eskolaratzea. Hala ere, ume asko dira leku barik geratu direnak eta horregatik eskola gehiago eraikitzeko laguntza eskatu dute.

Hiruatz, hirugarren mundu taldeak eskuartean duen Bukavu proiektuaren inguruan berri pozgarriak heldu dira. Proiektua aurrera aterata da eta hasieran aurrikusita 9 ikasgela egon arren, dagoeneko 18 ikasgela eraiki dituzte Buhimba eta Cabarabe herrietan. Horrela, adin guztietako 1.000 umetik gora eskolaratzea lortu da.

Bukavu proiektuaren bidez eskolen eraikuntzarako materiala eta langilegoa finantziatu dira. Bertako guraso eta gazteek gainontzeko lanak egin dituzte: harriak ipini, area, egurrak, transportea, peoizta lana, e.a.

Gainera, sortu den mugimendua ikusita beste laguntza batzuk ere jaso dituzte: adreilu egilearena, diputatu batena, bertako elizarena, etab.

Guzti horren ondorioz, gastuak uste zena baino txikiagoak izan dira, eta horregatik, hasieran aurrikusitakoa baino ikasgela gehiago eraiki dira.

Eskola gehiago

Eraiki diren ikasgela guztiak beteta daude dagoeneko eta oraindik ere ume asko gelditu da eskola barik. Hori dela eta, eskola gehiago eraikitzeko laguntza eskatu dute Bukavutik.

Beste 13 dira eraiki gura diren ikasgela berriak: 6 gazteentzat, 3 haur-hezkuntzarako, 3 helduen alfabetatzerako eta 1 emakumeen formazio berezitarako.

Orain arteko sarrerak 10 milioi pezetatakoak izan dira. Eraikitako 18 ikasgelen kostua berriz, 10,9 milioi pezetatakoa.



Argazkietan bere eskola eraikitzen burubelarri ari den herri bat ikusi daiteke



Honez gain, eraiki gura diren 13 ikasgelek 8 milioitako aurrekontua dute. Guzti horrek gaur egungo gastuei 8,9 milioi gehitzea eskatuko luke.

Hiruatz, Hirugarren mundu taldeak, Bukavu proiektuarentzako laguntza jasotzen jarraitzeko

asmoa azaldu du. Era berean, bai Bukavuko biztanleek eta baita Hiruatz taldekoek ere beren esker ona adierazi gura diete proiektuan laguntza eman duten guztiei, guzti honek lanean jarraitzeko sortzen dituen animoak haundiak dira eta.

EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...
Enpresendako promozio bideoak.

Eskola eta Elkarteendako promozioak eta ekintza bereziak.
Etxeetan grabatutako bideoen muntaiak.

Otalora 15 • ARETXABALETA •
Tfnoa: 79 78 37

TXIMAK ileapaindegi mistoa



Herriko Plaza, 5 - behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABALETA



Jubilatuen eguna urriaren 5ean ospatuko da

Jubilatuen eguna

Urriaren 5erako jubilatuen eguna antolatuta dago. 65 urtetik gorakoek zita garrantzitsua izango dute urriko lehen zapatuan.

Goizari umore honez ekiteko, 11etan salda banatuko da guztientzat Basotxon. Egurdiko 12,30etan meza izango dute Andra Mari parrokian eta ondoren bazkaria kiroletxean.

Bazkaltzeko menu ederra daukate: urdaiazpikoa, errusiar entsalada, egositako langos-

tinoak, legatza, eta postrerako trufazko tarta izozkiarekin. Bukatzeko, kafea, kopa eta purua.

Bazkal ostean, dantzatzeko aukera izango dute guztiek.

Jubilatuen egunera Aretxabaletako jubilatu guztiek joateko aukera dute eta egun haundi hori urtero moduan aurten ere arrakastatsua izatea espero da.

Bazkarirako txartelak erosteko Basotxotik pasatu behar da.



Leizarra musika eskola: panderoa jotzen ikasteko taldea behar da

Leizarra musika eskolak panderoa jotzen ikasteko kurtsoa antolatzeko asmoa du horretarako taldea osatzen bada behintzat.

Hori dela eta, panderoa jotzen ikasi gura baduzue Leizarra musika eskolan eman behar da izena, 79 36 50 telefonoan (arratsaldeko 5etatik 7etara).

Musika eskolan eskolaurreko umeak ere onartuko dira

Orain artean Leizarra musika eskolako lehen mailako taldean 6 urtetik gorako umeak bakarrik onartzen ziren. Hemendik aurrera berriz, eskolaurreko umeak ere onartuko dira, hau da, 5 urtekoak.

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

Izozkitegi-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Artano Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA



Eskulan ikastaroak

Kultur etxeak eta baita Tril emakume taldeak ere eskulan ikastaroa antolatu dute. Lehenengoari dagokionez oraindik ordutegia zehaztu barik dago baina urria aldera hasiko da. Gura duzuenok kultur etxean eman dezakezue izena, 79 01 05 telefonoan.

Loramendi E.E.ko Tril emakume taldekoek ere beste eskulan ikastaro bat antolatu dute. Kasu honetan urriaren 2an hasiko da eta Mila Akizuk emango du. Asteazkenetan izango da, 6etatik 8etara bitartean. Guztira 30 ordu eta prezioa 3000 pezeta.

Izena ematea irailaren 23tik 27ra bitartean egin daiteke Loramendi E.E.an. Ikasle kopurua 10ekoa da.

Aquagym eta igeri ikastaroei buruzko oharra

Igeriketa eta aquagym ikastaroetan apuntatzeko epea zabalik dago dagoeneko. Aquagym ikastaroa irailaren 30ean hasiko da eta plazak murriztuak dira. Gutxienez 8 edo 10 lagun apuntatu beharko dira ikastaroa aurrera eraman ahal izateko.

Era berean, aquagym-a, uretako gimnasia, zer den jakin gura duenak probatzeko aukera izango du, sesio bat dohainik egiteko aukera dago eta.

Ikastaro honetan parte hartzeko ez da beharrezkoa igerian jakitea, baina gomendagarria da ideia txiki bat izatea. Informazio gehiago gura izan ezkerro kiroletxean galdetu daiteke 79 64 61 telefonoan. Apuntatzeko ere bertara jo behar da.

Igeriketa ikastaroan apuntatzeko ere kiroletxera jo behar da. Hemen ere, gutxienez 10 lagun beharko dira ikastaroa aurrera eramateko eta gehienez 15-20 lagunekoak izango dira taldeak.

Tamaina haundiko hondakinen bilketan aldaketak

Datorren urritik aurrera, tamaina haundiko hondakinak hileko lehenengo ostiralean batuko dira eta ez 4. ostiralean orain arte bezala.

Hileko lehenengo ostirala jai eguna izanez gero, zerbitzua 2. ostiralera aldatuko da. Gogoan izan azaroko eta abenduko lehen ostiralak jaiegunak direla, beraz bi kasu hauetan hondakin haundiak azaroaren 8an eta abenduaren 13an batuko dira.

Urriko zerbitzua berriz, 4an izango da eta irailekoa orain artean bezala 27an. Tamaina haundiko hondakinak zerbitzu-egunetan goizeko 7etatik 8etara bitartean atera behar dira zaborrak uzteko lekuetara.

Gimnasiako klaseetan aldaketak

Urrian, mantentze gimnasiako arratsaldeko ordutegiak aldaketa izango du. Ostiraleko klaseak ostegunera pasatuko dira, horrela ikasleei zerbitzu egokiagoa eskainiz. Honen ondorioz Atzegi-koei ostegunetik ostiralera aldatuko zaie klaseen ordutegia.

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA



Eguraldiak ez, baina dantzariak herria alaitu zuten

Pasatu den domekan hauren eguna ospatu zen. Eguraldiak ez zuen asko lagundu baina dantzariak ez zuten horregatik umorea galdu. Gure herria kolore txuriz, gorriz eta orlegiz jantzi zen.

Zazpi herritako 300 bat umek parte hartu zuten dantzari egunean, horien artean, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Oñati, Antzuola, Azkoitia

eta Soruluzekoak.

Goizean kalez-kale dantzan ibili ondoren arratsaldean alardea egiteko Iturrigorri frontoian elkartu ziren. Eguraldiaren beldur, aurtien plazan dantzatu beharrean frontoia erabili behar izan zuten.

Hala ta be, giro ona egon zen eta lagun asko hurbildu zen frontoira dantzariak ikusteko.

Ameriketara AU-PAIR

Ameriketara urtebeterako *Au pair* moduan joateko hementxe duzue aukera ezin hobea. Osane Ayastuy *Au pair* egonikoa da Estatu Batuetan eta gaur egun bera da hemen inguruan gai honen ardura daramana. Berak informazio zehatzagoa badu ere, hona hemen labur labur azalduz *Au pair* lanbideak eskatzen dituen baldintzak: 18-26 urtera bitarteko adina izatea, 12 hilabeteko estantzia Ameriketara eta honez gain, graduatu eskolarra, umekin esperientzia, eta kotxeko karneta izatea.

Au pair-ak gehienez 45 orduko lana egin beharko du astean.

Au pair programan parte hartu gura dutenentzat aukera onak eskaintzen dira: Ameriketarako bidaiak ordaindua; astero 115 \$ (14.000 pezeta) eta honez gain bertan ikastaroak egiteko 500 \$. Aldi berean, oinarritzko segurua ere programak ordaintzen du eta baita 13 hilabetetarako bisadua ere.

Norbaitek gai honen inguruan interesik edo informazioa gura izango balu Osane Ayastuy-rekin harremanetan jarri behar du, 79 41 83 telefonoan.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

San Migelak, Euskal giroko jaiak

Bihar hasiera eman eta domekara arte luzatuko diren San Migel jaiak ekintzaz beterik azaltzen zaizkigu. Dagoeneko zuen artean izango duzue jai programa eta ez du hortan luzatzerik merezi.

Kultura batzordeaz gain herriko taldeek parte hartu dute jaien antolakuntzan, Loramendi E. E.ak, Talde Antimilitaristak, Murrukixok eta hauen artean herriko koadrilak ere hor izan ditugu.

Ea ba, denon gustoko jaiak izaten diren eta astebukaera polita pasatzen dugun, hori bai jaietan murgildu eta partehartuz.

Joseba Larrinazari agurra, Markeliñe taldeak eskainiko duen Armagedon antzezlan, artizan eta produktu biologikoen feria, bazkari intsumitua, Beinke-Loramendi dantza, txokolatada, herri kirolak... beste ekintza batzuen artean San Migel jaietako aipagarriena dugu.

Zapatuan baserritar jantzi zaitez!!!

Nafarroa Oinezako laguntza

Aurtengo Nafarroa oinez eguna Etxarri Aranazen ospatuko da urriaren 13an. Hori dela eta, egun horretan zehar laguntzeko jendea behar da. Norbait gertu egon ezkeror Loramendi Elkartearen eman behar da izena urriaren 2a baino lehenago, 77 09 70 telefonora deituta bestela. Euskararen alde lan egiteaz batera egun ederra pasatzeko aukera izango da Etxarri Aranazen. Egundorretan batzen den dirua, bertako Andra Mari ikastola haunditzeko izango da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza jarri gura da eta.

Ortzadarrek lokalez aldatu du

Azken urteetan lokal aldaketa asko izan ditu Ortzadar taldeak. Oraingo honetan ere beste lokal bat utzi diete, eskolaurreko 3. pisua. Dagoeneko lokala apaindu dute eta dotore-dotore gelditu da. Ia ba hemendik aurrera lokal finko bat izaten duten eta ez dituzten horrenbeste mariatzen.

“Arantxen” eguna

Arantxa edo Arantzazu izena duten emakumeak datorren urriaren 19an elkartuko dira Arantzazun. Oñatin bildu eta oinez Arantzazura igoko dute bertan meza nagusia entzuteko. Ondoren Txopekuara jeitsiko dira bazkaltzeko eta elkar ezagutzeko aukera izango dute bertan. Zuk ere Arantxa edo Arantzazu izena baduzu Euskadiko kutxan eman dezakezu izena.

MARKELIÑE “ARMAGEDON”

Ostiral gauean Markeliñe antzerki taldeak “Armagedon” kaleko gau antzerkia eskainiko digu.

“Armagedon” Apokalipsia edo suntsidura adierazten duen hitz biblikoa da.

Antzezlan honen gai nagusia gerra da. Gerra guztietan ikusten dena erakutsi nahi du, gizakiaren suntsipen gaitasuna hain zuzen ere.

Gaiak, tristea badirudi ere, ordubeteko antzerki saio ikusgarria da, ironia, umorea, eta sorpresak



tartekatzen dituen. Panpinak, hankaluzeak, aktoreak, piroteknia, argiak... agertzen dira antzezlanean.

1991. urtean Gernikako bonbardeaketaren urteurrena ospatzen zela eta “Armagedon” antzezlanaren urte berean estreinatu zen.

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABAETA

JOLAS
LEKU

Mitarte, 10
Aretxabaleta

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta



Ai ama!

badatorrela (1)

Telebistan ikusten ditugun dokumentalek erakutsi digutenez NATURA krudela da oso. Bizitza *ehiza-ihesa* dinamika horretan murgildurik dago eta animaliek ere lege honen menpe bizi beharra daukate.

hauek kolore *apostatikoak* garatu dituzte.

Izan ere pozoiak defentsa-arma ona dirudi baina harrapakariari ohartarazi egin behar zaio harrapakina hilgarria dela, bestela, behin irentsi eta gero zer axola du ehiztaria hiltzen den edo ez.

Hau kontutan izanik nolabaiteko *abisua* emango duten kolore kontrasteak erabili dituzte. Kolore apostatikoetan ugariak horia-beltza (erlea bezala) eta gorria beltza dira. Modu horretan harrapakinak bere ehiztaria ohartu egiten du: *kontuz motel! ez nazak jan, arriskutsua nauk eta!*

Noski, aukera hau ezin da desaprobatu eta pozoitsua ez den hainbat anima-

liak ere kolore hauek garatu ditu bere harrapakariak uxatzeko, esate baterako *marigorringoak*. Gororatu nolakoa den.

Begi faltsuak

Beste zenbait izakik begi faltsuak margotu dituzte beren gorputzean. Oso famatuak dira zenbait *arrain tropikalen* edo zenbait *tximeletetan* begiak. Teknika honek bi helburu izan ditzake, alde batetik beren burua benetan dena baino haundiagoa dela pentsa eraztea, eta bestetik buruaren kokapena aldatzea. Teknika ona da hau, zeren eta harrapakariak burura erasotzen dute, eta hobe da hego zati bat galtzea burua baino.



Begi faltsuak *Smerintha ocellata* tximeletaren atzeko hegaletan

Ehizarako teknikak ia guztiok ezagutzen ditugu. Animalia batzuek ehizaren arrakasta abiaduran oinarritzen dute, esate baterako *belatzek*. Beste batzuk aldiz segadak egiten maisu dira, adibidez *sugeak*.

Baina interesgarriagoak dira ihes egiten ahalegintzen diren animalien teknikak. Hona hemen harrapakariei agur esateko garatu dituzten hainbat era:

Pozoia:

Zenbait animaliak pozoitsuak diren sustantziak sortu dituzte ehizatuak izatea ekiditeko. Horrela *arrubioak* (salaman-drak) bere azalean du pozoia, bestalde *erleak* ezten pozoitsua dauka. Baina pozoia sortzearekin batera animalia

T
X
i
L
A
R
R
A

ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETAK




Zenbaki

Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99



LOGOPEDIA
ZENTRUA

ARRASATE


HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

 Mikel Arroiabe



Euskalan,

Euskara lan mundura hurbiltzen

Deba Garaian euskara bultzatzeko ahalegin asko egin da, bai irakaskuntzan, komunikabideetan edota herri-administrazioan. Lortutako emaitzak ere begi bistakoak izan dira.

Lan munduari dagokionez ostera, euskararen erabilera bultzatzeko pausurik eman bada ere, (gogora ekarri behar da, AED elkarteko Euskalan izeneko talde batek, beste euskera eta kultur elkarteekin batera egindako lana) ez da aski izan eta gehienetan gaztelera da komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza bakarra.

Guzti honek, irakaskuntzan, familian eta aisialdian euskararen alde egindako lan guztia jarraipen barik uzten du. Zertarako euskeraz ikasi eta hezi lanean gaztelaniaz egin behar bada?

Guzti hau kontutan izanik, AEDren laguntzaz, eta beste kooperatiba eta lantegietako langileen gidaritzapean, euskarak lan munduan behar duen bultzada emateko eta langile euskaltzaleen indarrak batzeko Euskalan Elkarteak sortu da.

Euskalanek, enpresetako langile euskaltzaleak biltzeko

**Euskalan, euskararen erabilera lan-munduan bultzatzeko elkar-
tea da. Orain artean euskara
bultzatzeko lan haundia egin da
gure bailaran, irakaskuntzan,
komunikabideetan, kalean...
baina lan munduan hutsune
nabarmen bat egon da.
Hau ikusirik, AEDko Euskalaren
laguntzaz, eta hainbat koope-
ratiba eta lantegitako langileen
gidaritzapean, EUSKALAN Elkarteak
sortu da, lan munduan euska-
raren erabilerari bultzada bat
emateko asmoz.**



asmoa du, honekin batera euskararekiko sentsibilitatea sustatzeko eta ekintza guztiak koordinatzeko.

Deba Garaiko kooperatibetan eta lantegietan sortu bada ere, Euskal Herriko enpresa eta kooperatiba guztietara zabalatzeko asmoarekin sortu da. Azken finean, euskararen alde egin gura duten langile guztientzat zabaldua dago.

Dagoeneko 1997. urterako egitasmoak ere gauzatu dituzte, horien artean: 1.000 partaide biltzea; 10 enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko planak bideratzea eta 15 enpresetan euskara batzordeak sortzea.

Guzti horretarako, gure enpresetan euskarari atek zabalatzeko, lana eta gogoia beharrezkoak izango dituzte programa honetan diharduten langileek. Era berean, euskara erabiltzeko eta erabilarazteko benetako konpromisoa ere behar du.

Euskalan elkartearen jaiotza ofiziala urriaren 9an izango da, arratsaldeko 7etan Arrasateko Amaia Antzokian. Bertan, Batzar sortzailea burutuko da eta joan gura duenarentzat gonbidapena luzatzen da.

“Euskarak lan munduan behar duen bultzada emateko eta langile euskaltzaleen indarrak batzeko Euskalan Elkarteak sortu berri da”

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

BERALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

**OSKAR
GARAIEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**KIXKOR
TABERNA**

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta



Herriko nagusienek Deba ibaia garbi ezagutu dute, begetazioa eta bizitza zuen ibaia. Beste batzuk, ostera, ez dugu horrelako zorterik izan eta ibaia garbi ikustea ametsa iruditzen zaigu. Baina hemendik 4, 5 urtetara gure errekako ura garbi egongo da.

Horretarako Gipuzkoako Ur Partzuergoak saneamendu plana martxan jarri du, ur zikinak garbituz eta ibaia berreskuratuz. Lan hau ez da Partzuergoaren eta Udalaren zeregina bakarrik izango, herritarren kontzientziazio lana ere beharrezkoa izango da.

Aurreko astean guzti honen berri emateko KAIXO URA ize-neko erakusketa ibiltaria herrian izan genuen. Honez gain, Gipuz-

Deba ibaia: 2000. urterako garbi

koako Ur Partzuergoko gerentea den Iñigo Elozegi eta Koldo Azkoitia udaletxeko zinegotziak saneamendu planaren eta finantziario kanonaren aurkezpena egin zuten. Honekin batera, URAREN KULTURA BERRIAREN oinarriak ere azaldu zituzten.

Uraren ziklo osoa

Itsas azalean lurrin bihurtu ondoren euri moduan lurrera erori, urtegietan bildu eta tratatu eta gure etxe eta lantegietara iristen da ura. Gero berriro bildu eta garbitu ondoren ibaian zehar berriro itsasora iristen da. Hauxe da urak jarraitu beharko lukeen prozesua.

Prozesu honetatik, Gipuzkoako Ur Partzuergoak ura urtegietan bildu, garbitu eta herrietako ur-depositoetara bitarteko horniketa beregain hartzen du.

Era berean, ur hau lantegi eta etxeetan erabili ondoren, ostera ere ur zikin hori jasotzen den lekutik tratamendu eta isurketa egiten den bitarteko saneamendua ere berari dagokio (hodi biltzaileak/kolektoreak eta araztegiak).

Lehenengo aipatutako aktibitateari dagokionez, hau da, ura bildu, tratatu, e.a. Partzuergoak obra asko egin du. Baina ur hori erabili eta gero, garbiketa eta isurketari dagokionez ezer gutxi

egin da.

Hori da hain zuzen ere hemendik aurrera martxan jarriko duen plana: ur zikin horiei tratamendua eman, horrela, erre kara garbi isurtzeko.

Saneamendu plana:

Plan honen arabera, gure etxeetako eta lantegietako ur zikin guztiak hodi biltzaile (kolektore) batean batu eta Bergaran egingo den arazte gira eramango dira, bertan garbitu eta berriz erre kara isurtzeko.

Hodi biltzailea Eskoriatzatik etorriko da eta errepide nagusitik Araba Ibilbidea zeharkatuko du, gero Bizkaia kaletik Errekabarrenera pasatuz eta hemendik errepide nagusitik Arrasatera jarraituko du. Obraren proiektua e gina dago, Eskoriatzan laister hasiko dira obrak eta gero Aretxabaleta koekin jarraituko da.

Hodi biltzaile horrek, hodi txikiagoak izango ditu ur zikin guztiak jaso ahal izateko eta obra hauetaz Udala arduratuko da.

Finantziazioa:

Aurten bertan Errekabarren eta Loramendi elkartuko dituen errepidean plan honen barruan dijoan hodi biltzailearen azpiegitura sartuko da, horrela bidea

Hemendik 4, 5 urtetara Deba ibaia garbi egongo da

Aurten bertan Errekabarren eta Loramendi elkartzen dituen errepidean hodi biltzailearen azpiegitura sartuko da

Ura balio haundiko erre kurtsua da eta zaindu eta errespetatu beharra dago

ostera altxatu beharrik ez izateko.

Obra honek 34 milioitako aurrekontua du. Gipuzkoako Foru Aldundiak % 50a finantziatuko du eta beste erdia Ur Partzuergoak.

Deba Garaiko hondakin-uren saneamenduak berriz, 7.500 milioi pezetatako aurrekontua du. Partzuergoaren arabera kopuru honen %25a uraren erre zibotik datozen diru kantitateekin ordainduko da (Udalek). Gainontzeko zatia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin ordainduko da.

Finantziazio kanona ordaintzeko uraren erre ziboan 0,03 pta/litroko igoera aurreikusten du Partzuergoak. Hala ere, Uraren kobraketa Udaletxe bakoitzaren esku dago eta kasu honetan udaletxeak finkatuko du uraren prezioa. Datorren urtean urak igoera izango du baina oraindik kantitatea zehaztu barik dago. Hala ere, ez da haundia izango, IPCaren tamainakoa izatea espero da.

Uraren kultura berria:

2000. urterako Deba ibaia garbi izango dugu. Baina honetarako ez da bakarrik aipatutako entitateen lana nahikoa izango, herritarren kontzientziazio lana ere beharrezkoa izango da. Horretan datza hain zuzen ere, URAREN KULTURA BERRIAK.

Uraren kultura berria, uraren aurreztean eta zentzuzko erabileran, kalitatean, eta ingurugiroarekiko errespetuan oinarritzen da.

Gipuzkoako Ur Partzuergoak hemen bizi garen pertsonen proposatu gura dizkigun baloreak dira, gure ibaiak bizitza izan dezan gure eguneroko jarretetan sar ditzagun.

Azken finean uraren kalitateak eta herritarren bizitza kalitateak erlazio zuzena dute eta ura bizitza kalitatea moduan ulertu behar da.

Ez dugu ahaztu behar ura balio haundiko erre kurtsua dela, eta horregatik zaindu eta errespetatu beharra daukagu.



XXI. mende hasieran Deba ibaia garbi izango dugu



Atxabalta dantzari



Maier Errasti

◀ 7 urte

Oso ondo pasatu dut. Txulalai eta Zazpi jauzi dantzatu ditugu. Bazkaria izan da eguneko politena, bi neska eraman ditugu etxera bazkaltzera. Dantzatzea asko gustatzen zait etaiaz hasi nintzen dantzan.



**Iñaki Kortazar
(Eskoriatza)**

▶ 13 urte

Lehenengo aldia da Aretxabaletara dantzatzera etorri naizena. Orokorrean oso ondo pasatu dut, arratsaldean batez ere. Ikurrin dantza, Jorrai dantza, Txulalai eta Banakoa dantzatu ditugu. Ikurrin dantza da niri gehien gustatzen zaidana.

*Zer moduz
haurren
egunean?*



Beñat Zamaioa

◀ 10 urte

Ondo, eguraldiak asko lagundu ez badu ere. Arratsaldeko alardea izan da gehien gustatu zaidana. Jorrai dantza, Banakoa, e.a. dantzatu ditugu. Niri Jorrai dantza gustatzen zait gehien baina baita beste dantzak ere.

*Zein
dantza egin
dituzue?*



Andere Etxabe

▶ 7 urte

Edarto pasatu dut. Dantza asko egin ditugu, zazpi jauzi, Makil Txiki, Ikurrin dantza... Zazpi jauzi da denetatik gehien gustatzen zaidan dantza baina orokorrean denak ditut gogoko.

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparagirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABAleta

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABAleta

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08


Iber

❁ Paperdenda ❁

Otalora, 2 ☎ Tfnoa: 79 79 24
Aretxabaleta

MartiW
RELOJERIA - BIXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72



Euskal dantzak beti izan du edertasunik eta berezitasunik beste herrialdeetako dantza folklorikoengandik bereizi duena. Gure dantzaren eboluzioa, pauso eta salto nahastuetan eta gorputz espresio berezietan oinarritu izan da, beti ere bere dotorezia erakutsiz.

Dotorezia erakutsi zutenak gure herriko mutil hauek izan ziren, 1953. urte inguruan plazako eskilaretan argazki hori atera zutenean. Batzuk makila eta beste batzuk ezpata dute eskuartean. Makila eta ezpata Euskal dantzaren elementu izan dira historian zehar eta orain ere hala dira. Euskal folkloreak mendez-mende bizirik dirau, mutil hauek dantzatzen zituzten dantzak bezala: ezpata dantza, banakoa, binakoa, makil dantza, sahagi dantza,... Aldaketarik izan badute ere ez dira desagertzera heldu.

Argazkiko taldeak, **Sabino Zuazabeitia** zuen maixu. Parrokiko taldea zen. Udaletxeak indar gutxi zuen garai haietan eta kultura aldetik ezer gutxi egiten zen. Horregatik, parrokiatik zuzentzen ziren gehienetan kultur ekintzak.

Sabino, seminarista ikasketak egiten ari zen Donostian eta bertan ikasitako dantzak uda partera herrian erakusten zituen, gero Andramari hirugarrenean eta bestelako jai egun batzutan dantzatzeko.

Argazkikoak ondorengoak ditugu:

Ezkerreko iladan goitik behera: **Iñaki San Migel, Luis Mari Urzelai, Andoni Antxia, Migel Igartua.**

2. iladan: **Mariano Otxoa, Luki Elorza, Jesus Uribesalgo, Antonio Maria Aretxaga.**

3. iladan: **Iñaki Bengoa, Angelito Etxabe, Jabier Gereño, Migel Uribetxebarria.**

Eskumako iladan goitik behera: **Joseba Uribesalgo, Manolo Etxebarrieta, Jesus Garciaetxabe, Agustin Urrutia.**

Bandera eskuetan duena: **Jose Antonio Iturricastillo.** Eskumaldean, **Sabino Zuazabeitia**, gaur egun Oñatiko parrokoa, orduko taldeko arduraduna.

Dotorezia erakutsiz

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Badatoz San Migelak



M.J. Aretxaga

Udak udazkenari lekua uzten dion aste honetan Aretxabaletako kaleak ostera ere *baserritarrez* beteko dira San Migelak datoz eta. Danetik izango dugu hurrengo egunetan: antzezleak, trikitilariak, bazkari intsumitua, Beinke-Loramendi dantza, TRILEkoek presatutako taloak, eta abar. Pertsona ospetsuak ikusteko aukera ere izango dugu. Goenkaleko trajea alde batera utzi eta harriarekin jolastera etorriko zaigu **Iñaki Perurena**.

Gainera herriko beste ospetsu bati, **Joseba Larrinagari** omenaldia egingo zaio. Ez da egunero lortzen berak lortu duena. Beldur naiz ospakizunetara ohituko ete den eta gero takarraran egiteko gogoia joango zaion.

San Migelak antolatzen ibili den **Inma Migel**, kultura eta kirol teknikaria, Bartzelonan izan da

Gipuzkoako gazte teknikari eta zinegotzi batzuekin batera. Bertako gazteri eta kultur politika ezagutzera joan da. Ez dugu ez, maila makala atxabaltarrok.

Jaiak dana dala bakoitzak gura dituen moduan ospatzen ditu eta **Iñurrategi anaiak**, **Bereziartua** azpeitiarrarekin batera Shisha Pangma gailurrean ospatu gura dituzte. Ea zorte txarra bukatu eta dena ondo joaten zaien.

San Migeletarako ez baina San Migel osterako euskara talde berri bat izango dugu gure artean, Euskalan hain zuzen ere. Talde hau euskera enpresetara eramaten saiatuko da. Taldean badaude atxabaltar batzuk, **Inaxio Garro** Euskadiko Kutxatik, **Julen Zuazabeitia** Lagun Arotik eta **Josu Urkia F. Ederlanetik**.

Julian Bastardo mondrauetarrak ondo pasako ditu San Migelak. Loiola herri irratia eta UDAK ematen duten saria berak irabazi du. Ez da sari makala: bi txartel Erreala eta Extremaduraren partidurako; bi pertsonendako bazkaria eta gau bat bi lagunendako Igeldo hotelean, pentsio erdian. Gainera esan behar da, saria erdixka etxean gelditu dela, Julian, Igor Bastardo UDAko jokalariairen aita da eta.

Dagoeneko intsumisoen zapia erosi dut baina oraindik Beinke-Loramendi dantza ez dut menperatzen, beraz banoa entsaiatzera.

Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Ulia hartu → TXARTO
Adarra jo → ONDO

Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskerak elkartea



Juantxo Torres Flores

“Denbora gehiago izango banu nire euskera sakontzen saiatuko nintzateke”



1988. urtean Juantxok, Ronda (Malaga) bere jaioterria utzi eta Aretxabaletaraino etorri behar izan zuen lan bila.

Zortzi urte iragan ondoren, gaur Juantxok euskera jakiteaz gain urdaitegi batetako negozioa darama.

Andalus peto-petoa izan arren euskeraz ere berba egiten du, badu meritua!

• Zer moduzkoak dira zure urdaitegia bisitatzen duten atxabaltarrak?

Mundialak. Jende oso jatorra eta ni bezalako asko daude, berba egitea asko gustatzen zaienak.

• Euskera ikasten ari zarela entzun dut. Egia da?

Egia da bai. Behin honaino etorrira nire buruari eskatu diezaiokekan gutxiengoa da bertako hizkuntza ikasten saiatzea.

• Andaluziar batentzat zaila da euskera ikastea?

Ez da erraza. Euskera batuarekin nahiko ondo konpontzen naiz bai ulertzeko eta berba egiteko ere. Baina herri eta zonalde desberdinetako euskerak nahastu egiten naute.

• Zein da ikusi duzun azken filmea?

“Oficial y caballero” Richard Gere-na.

• Eta musika mota bat aukeratzekotan?

Rock & Roll-a ni bezalako martxoso batentzat.

• Gogoko dituzun herri batetako jaiak...

Jairik onenak Aretxabaletakoak jakina. Baina aspaldiko juergarik haundiena eta markarik haundiena Eskoriatzan.

• Nolakoa da zure izakera hiru berbetan?

Saltseroa, zabala eta pertsonalitateduna. Norbere pertsonalitatea edukitzea ezinbestekoa da.

• Nongo neskak gurago, Andaluziakoak ala Euskal Herrikoak?

Nik neuk Euskal Herrikoak. Euskal Herriko neska bat maite dudalako.

• Euskal Herria hitzak zabalera haundia erakusten du. Ezin dezakezu konkretatu?

Ez, sekretua da. Gure inguruan bizi den emakume bat da.

• Zer majia erabiltzen duzu neskak konkistatzeko?

Nire begirada da neskak txoratzen dituen.

• Sentimenduak alde batera utzita... Hondartza, kalea ala mendia gurago?

Mendia. Hemengo mendiak izugarriak dira, koloretsuak eta bizitzaz beterikoak.

• Eta loteria tokatu ezker, zer?

Diru kopuru gehiena gaixoen zentro batetara ingesatuko nuke. Niretzako ere diru piskat hartuko nuke baina gehiena atzeratu, edo gaixoei laguntzeko zentru batetara bidaliko nuke.


• Amaitzeko Juantxo, zerk egiten zaitu zoriontsu?

Asko saltzeak, beste komertzianta batzuri moduan, je, je, je...

Andoni Arana




liburu erraldoiaren aurkezpena



Datorren asteartean, urriak 1, Liburu Erraldoiaren aurkezpena egingo da 2. mailako haurrentzat Udal liburutegian. Pello Añorgak ipuin bat kontatu eta bitartean Iñaki Garmendiak marrazki bat egingo du ipuin horren inguruan.

Liburu Erraldoia liburutegian geratuko da gero urte guztian zehar, nahi duenak irakurri berri duen liburuaren edo bere pertsonaia maitatuenen marrazkiak bertan egin ahal izateko, edo besterik gabe besteek eginiko marrazkiak ikusteko. Guzti honi buruz gehiago jakin nahi duenak liburutegiko arduradunari galdetzea besterik ez du.

Joseba Lopez de Armentia



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30



Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

OÑATI



San Migelak

Irailak 26-Urriak 12

Irailak 27

ÑAKE ANTZERKI TALDEA

Gaueko 10,30etan Santa Ana antzokian.

Irailak 28 zapatua

Txirindulari lasterketa, 3. mailako futbol partidua, txistulari, erraldoiak, meza...

Gaueko 12etan **ALMEN** taldearekin dantzaldia San Anton plazan.

Irailak 29 domeka

Haurren parkea, meza nagusia pelota partiduak...

Berto jaialdia Zubikoa pilotalekuan, **S. LIZASO, A. EGAÑA, J. SARASUA, A.M. PEÑAGARIKANO, I. LAZKANO, M. MENDIZABAL.**

Irailak 30 astelehena

Goizeko 9,30etan **SOKAMUTURRA.**

Goizeko 10etan Txopekua tiro zelaian herri mailako **PLATER TIRAKETA.**

Arratsaldeko 5etan **SOKAMUTURRA.**

Gauean **DANTZALDIA TRABUKO TALDEAREKIN** Foru enparantzan.

Urriak 5 zapatua

Goizeko 10,30etan **HERRI MAILAKO ARDI, AHARI ETA BILDOTS LEHIAKETA. LORE ETA LANDARE** erakusketa eta eskualde mailako **GANADU ERAKUSKETA.**

ARTISAU ERAKUSKETA.

Eguerdiko 12etan sagardo dastaketa.

Arratsaldeko 5,30etan Foru Enparantzan **HERRI KIROLAK.**

HERRIKO KOADRILEN LEHIAKETA.

Urriak 5 zapatua

Gaueko 10,30etan **PELOTA PARTIDU FINALAK** Zubikoa pilotalekuan.

Ondoren **ARIZGOITI TALDEAREKIN DANTZALDIA** Foru enparantzan.

Gaueko 11etan **TUMBAITO SALSA TALDEA** atzeko kaleko plazatxoan.

Urriak 6 domeka

Arratsaldeko 8etatik 9etara **DANTZALDIA IMAN**

ORKESTRAREKIN.

Gaueko 11etan **SUZKO ERRUERAK.**

Gaueko 11etan San Anton plazatxoan **ROAD RUNNERS RITME & BLUES** taldea.

Urriak 7 astelehena

Goizeko 9etan **SOKAMUTURRA.**

Eguerdiko 12etan **KOADRILEN ARTEKO MOZORRO ERAKUSKETA.**

Arratsaldeko 5etan **SOKAMUTURRA.**

Arratsaldeko 8etatik 9etara eta gaueko 11etatik aurrera **dantzaldia EGAN** taldearekin.

ARRASATE

Urriak 11 eguakotxa

"Gazteak eta Intsumisioa"

VII. argazki lehiaketa

Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzua eta ASA argazki elkarteak antolatatu du **"Gazteak eta intsumisioa"** argazki lehiaketa. Bi modalitate, koloretan eta zuribeltzean.

Gaia: "Gazteak eta intsumisioa". Lanak aurkezteko epea urriaren 11. Informazio gehiago Arrasateko gazte bulegoan. Telefonoa: 77 00 65.

A R E T X A Z O K A

• Andramaixetan **urrezko pultsera** bat aurkitu nuen. Datu gehiago gura badi-tuzu deitu telefono honetara gaeuz: (945) 44 52 00

LANA

• Andereño diplomatua klase partikularrak emateko gertu dago. (OHOKO lehen mailatik BOKO lehen mailararte). Telefonoa: 79 75 23.

• Farmazian lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. (OHO eta BO zientzia gaiak). Tfnoa: 79 74 73.

• Emakume euskalduna eta kotxeduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 79 33 19.

• Etxeko lanak edo antze-koak egiteko neska bat eskaintzen da. Tfnoa: 77 09 08 Elenagatik galdetu.

ETXEBIZITZA

• Pisu bat salgai. 83 m² ditu eta jantzia. Solo-haundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma). Tfnoa: 79 45 31.

• Neska bat behar da Bilbon pisua osatzeko. Telefonoa: 79 44 64 Junegatik galdetu.

• Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

• Pisu salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdian eta arratsaldean).

• Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

• Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

• 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



Irailak 27, 28, 29

SAN MIGEL JAIK

Ikus egitarau berezia.
Ondo pasau!!!

Urriak 1 martizena

**LIBURU ERRALDOIAREN
AURKEZPENA LIBURUTEGIAN**

Liburu Erraldoiaren aurkezpena egingo da 2. mailako haurrentzat liburutegian. **Pello Añorgak** ipuin bat kontatu eta bitartean **Iñaki Garmendiak** marrazki bat egingo du ipuin horren inguruan.

Urriak 5 zapatua

JUBILATUEN EGUNA


Urriak 6 domeka

KILOMETROAK ELGOIBARREN

"**BANOA BANIXE, EUSKARAZ BAI HORIXE**"! lemapean ospatuko da aurten KILOMETROAK jaia Elgoibarren.

KILOMETROAK

Urriak 6 Elgoibar



*Ehun kilo
Kaxiano
Gelatxo
Bittor Aiape
Drindots
Zabale anaiak
Aitzol Mujika
Agautz
Urtz
Trikitixa Kontrairo
Zokoan
Zubipeco Swing
Egan
Bedaxagar Urbeltz
Trabuko
Lau behi
Zigor Gazkez
Naiara ta Ines
Takolo, Pirritx eta Porrox...*

Aurreko aleko irabazleak,
Jose Antonio Atxa
Ainara Bilbao
Jose Luis Txintxurreta
Nagore Olabe
Pako Oskoz
Saioa Etxebarria

Zorionak.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaeta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskalategia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 0970
• Murruxiko M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088

Ondo pasau San Migeletan

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABAETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

1997

MAVERICK


4x4



Espazioa eta erosatasuna.



Air-Bag.



125 zaldiko Turbo Diesela.

MUGARRI

